

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 22005eko uztailaren 1a

633. zenbakia

**AURREKONTUA/** EAJ-EAren eta Aralarren botoekin onartu zuten astelehenean

## 23,2 milioi euroko aurrekontua izango du Udalak 2005erako

EDU MENDIBIL

EAJ-EA koalizioa eta Aralarren aldeko botoekin onartu zuten 2005eko Udaleko aurrekontua. Ezker Batua, PSE-EE eta alderdi popularra aurka azaldu ziren asteleheneko udalbatzan. Iazko aurrekontuarekin konparatuz, %5,8 egin du gora aurrekontuak.

2005 urterako 23.256.634 euroko aurrekontua izango du Bergarako Udalak. Hala onartu zuten asteleheneko udalbatzan EAJ-EA koalizioak eta Aralar alderdiak, udal gobernuak kideak hain zuten. Oposizioan diren PSE-EE, PP eta Ezker Batuko zinegotziek ezeko botoa eman zuten.

### ADOSTUTAKO AURREKONTUA

Joan zen urteko aurrekontuarekin konparatuz, %5,8 egin du gora aurrekontuak. Orduan, 2004ko aurrekontuak aztertzean, Aralar abstenitu egin zen. Oraingoan, berriz, udal gobernuak osatzen dutenen aldeen arteko adostasuna egon da. Hain zuzen ere, Iñigo Iñurra-tegi Aralarreko kideak azaldutakoaren arabera, hainbat puntu adostu dituzte: epe ertain-luzerako planifikazio ekonomiko-finantzarioa lantzea; kirolgunearen proiektua erabat lotzeko BKErekin negoziatzea; ingurumen batzordeari bultzada ematea; auzoetarako plana egitea edo babes ofiziale-

ko etxebizitzak bultzatzea, besteak beste. Halaber, Seminarioko auditorioa bukatu bitartean Novedades aretoa zabalik mantentzeko eskaera egin zuen Aralarrek, baina ez zen akordioarik egon udal gobernuak kideen artean. Era berean, Udalbideri emandako 1.500 euroko dirulaguntza beraiek ez dutela onartzen adierazi zuen Iñurra-tegiak: "Udalbide EAJ-EAren udalbiltza da, eta gure aldetik ez dugu ondo ikusten udalbiltza honi dirua ematea eta besteari ez".

Bere alderdiaren ezetza azaltzeko orduan, Francisco Javier Garai PSE-EEko zinegotziak zera esan zuen: "Aurrekontuari ezetza eman diogu Ongizate zerbitzua-arendako diru gehiago zuzendu behar dela uste dugulako eta, bestetik, ez gaudelako ados Udalbideri 1.500 euro ematearekin".

### HIRU MILIOI KIROLGUNEAKO

Honela banatzen da astelehenean onartutako aurrekontua: Udalak 18,9 milioi euroko aurrekontua izango du, Mizpirualde Egoitzak 2,7 milioikoa, Bihargintza 1,5 milioikoa eta Udal Euskaltegiak, azkenik, 391.000 euro ingurukoa.

20. arean egin behar dituzten Ibargaraiko etxe berrien lursailaren salmenta dela eta, joan den urtean hiru milioi euro inguruko aurrekontua izan zuen Udalak. Kopuru horretatik 1,5 milioi euro Agorrosingo kirolgunera bideratuko dira. Era berean, Bihargintzaren bitartez beste 1,5 milioi inbertituko dituzte kirolgunean, hiru milioi guztira beraz.

Aurreikusitakoaren arabera, Udalaren zorpetze maila 13,16 puntukoa izango da.



ARTXIBOA

Agorrosingo kirolguneako hiru milioi inguru bideratuko ditu aurten Udalak.

### 2005erako aurrekontua

#### Udala:

18,9 milioi €

#### Mizpirualde egoitza:

2,7 milioi €

#### Udal Euskaltegia:

391.094 €

#### Bergarako Bihargintza SA:

1,5 €

### UDAL AURREKONTU OSOA:

23.256.634 €

### Udalaren aurrekontua

Gobernazio organoak	% 3
Admin., zerbitzuak, udaltzaingoa	% 32
Kultura zerbitzuak	% 5,6
Kirolak	% 4,5
Hezkuntza	% 3,7
Taldeak, jaiak	% 3,2
Euskara	% 3,7
Hazienda	% 11,9
Gizarte Ongizatea	% 12,7
Hirigintza	% 15,7
Mendi eta auzoak	% 4

### Inbertsio aipagarriak

Agorrosingo kirolgunea	3.000.000 €
Argiteria	501.000 €
Urbanizazioak	330.000 €
20. area	250.000 €
Artekale-Goenkale	200.000 €
Ur sarea	200.000 €
Eskoletako erreformak	193.350 €
Mendi nekazaritza	152.000 €
Auzoetako ekipamendua	143.000 €
Santa Marinako urbanizazioa	125.000 €
Kultur lokalak	118.710 €

- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa



Telleria 23, D5 pabilioia.  
Labegarieta Industrialdea BERGARA.  
Tel.: 943 76 98 30, Faxa: 943 76 52 44.



**KULTURA**/Egunero bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen du bulegoak

# Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da zabalik

E.M.

Udaleko Turismo Bulegoa irailaren 30era arte izango da zabalik. Azken urteotan moduan, Bilboko Nis enpresak izango du Turismo Bulegoaren ardura. Uda-ko lehenbiziko egunetan hainbat bisitari izan dira bertan, gure herriaren gaineko argibide eske.


Arantza Otadui arrasatearrak eta Maialen Elortza soralezetarrak dihardute Turismo Bulegoan. Astelehenetik larunbatera 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era dago zabalik. Domeka eta jai egunetan, berriz, 11:30etik 14:30era zabalduko dute.

## BISITA GIDATUAK

Ohi denez, egunero bisita gidatuak egiteko aukera eskaintzen du Turismo Bulegoak. Interesatuek 943 77 91 28 telefono zenbakira deitu dezakete argibide eske. Udaletxeko sarreraren ondoan dago bulegoa.

Domekan, uztailaren 3an, itxita egongo da. Era berean, uztailaren 10ean eta 17an itxita egongo da.

Xabier Aranburu udal museologoa pozik azaldu da bulegoak azken urteotan izandako harrerarekin.



Udaletxeko sarreraren ondoan dago Turismo Bulegoa.

## LABUR

### Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteko kideen eskulanak domekara arte ikusgai

Bergarako Emakumeen Kultur Elkarteak eskulan ikastaroa ikusgai jarri du Errotalde jauregian. BEKEko 30 kideren lanak daude ikusgai. Erakusketa domekara arte izango da zabalik, egubakoitzean 18:00etatik 21:00etara eta zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



### Eli Laskurain eta bere ikaskideak, sarituta

Eibarko La Salle ikastetxeko ikasle talde batek (tartean Elixabeth Laskurain bergarra) Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak deitutako Francisco Javier de Landaburu Civis saria irabazi du. Europar nortasunari buruzko lanak aurkeztu behar ziren eta La Sallekoek lehen saria eskuratu dute: Nestor Basterrearen artelan bat eta Europako hainbat hiri bisitatzeko bidaia. Makurtuta, bigarrena ezkerretik duzue Elixabeth. Zorionak!

# IRENE UNZUETA FISIOTERAPEUTA

Tratamendu osteopatikoa



Loreen bidezko terapia

Txanda hartzeko deitu:

**Tel.: 943 76 59 39**

San Martin Osasundegia • Ramon M<sup>a</sup> Lili 2



**JAIK/** Udalak 234 mahai alokatu ditu domekarako; 11:00etako mezaren ostean dantzak izango dira San Martzialen

## Ohiko programa San Martzialgo erromerian, eta herritarrak protagonista

E.M.

San Martzialgo erromeria ospatzeko ohiko ekitaldiak izango dira domekan: 09:30ean alborada, 10:00etan San Martzialera gurdiigoera, 11:00etan meza nagusia,

eguerdian dantza saioak eta ondoren ohiko aurrekua. Juan Mari Narbaizaren eta Egileorren bertsoak ere ez dira faltako goizean San Martzialgo erromerian. Arratsaldean, berriz, umeendako jolasak izango dira 16:00etan, eta

18:00etan, herri jolasak. Eguzki taldeak alaituko du erromeria, jai-tsierari ekin aurretik.

### BIDEA 15:00ETAN MOZTU

Santa Marinaran 15:00etan moztuko dute errepidea domekan.

10:30etik 20:00etara urbanoaren zerbitzua izango dute herritarrak, doan.

Musika Eskolako ikasleen eta Orfeoiaren kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.



1935eko San Martzialetan ateratako argazkia. Aurrekaldeko neska-mutikoak, ezkerretik: Paco Retegi, Miren Retegi, Blanca Jauregi eta Dorotea Jauregi. Atzerago, ezkerretik, Benito Arrondo, ezezaguna, Juan Miguel Arrondo, ezezaguna, Francisco Retegi (txapelarekin) eta Gertrudis Zabaleta. Zutik: Juana Diaz de Mendibil, Domingo Jauregi, Paco Arrondo, Luis Arrondo (asto gainean), Angela Aiastui eta Jose Mari Arrondo. Argazkia Esther Arrondok utzi digu.



San Martzial hurrengo domekan ospatzen zen garai baten San Martzial Txiki eguna. Goian, ezkerretik hasita: Jose Luis Garmendia *Gontzarri*, Jose Mari Solaun *Mon-draue*, Joxe Agirre *Marto* eta Patxi Bañrutia. Bigarren ilaran: Felipe Alarzia eta Juan Alberdi *Batzoki*. Hirugarren ilaran: Inazio Unamuno San Martin, Juan Iraegi *Juanito txikixa* eta Luis Unamuno *San Martin*. Etzanda: Luis Arrondo *Tximistia*. Asto eta guzti joan zen koadrila hau. Erretratua 1950ekoa da. Patxi Barrutiak utzi digu.

## LABUR

### KZgunean hainbat ikastaro egiteko aukera uztailan

Bergarako KZguneak hainbat ikastaro eskaintzen ditu uztailan. Besteak beste, Interneteko oinarrizko ikastaroa eta posta elektronikoa egiteko aukera dago. Hainbat ordutegi daude aukeran.

Era berean, Kutxanet ikastaroa izango da uztailaren 4an eta 5ean, Internet bidez banketxekeo operazioak egin ahal izateko. Edozein argibiderako 943 76 73 24 zenbakira jo dezakezue.

### San Kristobalگو jaiak uztailaren 8an hasita

Angiozar bidean dagoen San Kristobal auzoko jaiak ospatuko dira uztailaren 8tik aurrera. Hurrengo egubakoitzean ohiko pinu sartzea egingo dute, 22:00etan, eta ondoren txokolate jana izango da.

Uztailaren 9an Gardoki taldearekin erromeria izango da, 23:00etan eta domekan, San Kristobal egunean, autoen bedekapena izango da eguerdiko mezaren ostean.

# Sokamuturra

## Eduardo Arrillagaren argazki erakusketa

Bergarako Aroztegi jauregian / 2005eko uztailaren 1etik 24ra

**Inaugurazioa eta bisita gidatua**  
Uztailaren 1ean, ostirala,  
20:00etan

**Dj Ene!-ren emanaldia**  
Uztailaren 9an, larunbata,  
19:00etatik 22:00etara

**lñaki Azkunereren hitzaldia**  
**Sokamuturra**  
Uztailaren 15ean, ostirala,  
20:00etan

Ordutegia  
Astegunak: 18:30-20:30  
Larunbatak: 12:00-14:00 / 18:30-20:30  
lgandeak: 18:30-20:30



AROTEGI  
JAUREGIA



BERGARAKO  
UDALA

## ELKARRIZKETA

MARINA MADARIAGA/ GAZTE MAILAKO ESKUBALOI JOKALARIA

*“Ez ditut golak zenbatu, eta sorpresa izan da golegile nagusiaren saria jasotzea”*

EDU MENDIBIL

**M**arina Madariaga gazte mailako eskubaloi jokalaria (16 urte) golegile nagusiaren saria eman dio Federazioak. Denboraldi bikaina egin du, eta Gipuzkoako selekzioan aritzeaz gain, Arrate taldearen eskaintza ere jaso du. Hala ere, Bergaran jarraituko duela esan digu.

**Golegile nagusia izatea lagun-garri izango zen taldearendako, ala?**

Ez pentsa, ligan ez gara horren ondo ibili. Hasieran gogor baina denboraldi bukaeran nahiko justu ibili ginen. Zortzi talde lehiatu ginen eta laugarren bukatu genuen. Golegilearena ezustekoa izan da; ez nekien, eta pozgarria izan da. Ez ditut golak zenbatu, ez dakit zenbat sartu ditudan.

**Gol gehien egin zenuen partidua gogoratuko duzu...**

Arrasateren aurka, han. 0-35 irabazi genuen eta 16 gol egin nituen egun hartan. Partidu hark zerikusia izango zuen saria jasotzeko orduan...

**Golak egiteko erraztasuna da zure ezaugarri nagusia?**

Beharbada bai. Zentralka naiz eta kontraerasoan egiten ditut gol gehienak.

**Eta zer duzu hobetu beharra?**

Eraso estatikoko jokaldietan irtenbideak topatzen, adibidez.

**Gazte mailako Gipuzkoako**



E.M.

**selekzioan ere aritu zara.**

Bai, Bergarako taldetik Uxue Agirre eta biok izan ginen selekzioan, ekainaren hasieran. Bizkaiari eta Arabari irabazi eta Nafarroaren kontra galdu egin genuen. Gol bakar bategatik irabazi ziguten nafarrek. Azkenean, bigarren geratu ginen Iruñean jokaturako txapelketan.

**Arratek Eibarrera joateko eskaintza egin dizu.**

Bai, eta eskertzekoa da. Hala ere, gure maila berean izango dira, ez direlako igo. Gainera, Batxilergoko 2. maila egingo dut, eta gustura nago Bergaran, lagun artean jokatzeko. Nahiago dut lagunekin gozatu. Han exijentzia maila handiagoa izango zen.



### Bergarako Athleticzaleek denboraldia agurtu zuten San Martzialen

Peña Athleticeko kideek aurtengo denboraldia agurtzeko bazkaria egin zuten joan den ekainaren 18an, San Martzialen. 52 lagun elkartu ziren han. Giro ederrean bazkaldu ondoren, jolasak izan zituzten, eta umore ona izan zen nagusi. Mahai futbol txapelketan Alberto Herran eta Jose Antonio Pagaldai nagusitu ziren. Hilario Azkargortak bidalitako argazkian, herriko Athleticzaleak.

## LABUR

### Gazte mailako pilotariak oñatiarren aurka galdu zuten Debarroko finalerdietan

Eneko Muguruza eta Oier Aldai gazte mailako bikoteak 22-4 galdu zuten Oñatiko bikotearen aurka, egubakoitzean, Zubikoan. Debarroko finalerdietako joaneko partiduan ere oñatiarrak nagusitu ziren, Bergaran, 21-22ko emaitzarekin. Eneko Muguruzak Jon Larrañagarekin batera jokatu zuen orduan. Partidu hartan besoan mina hartu zuen Larrañagak eta joan den egubakoitzean Oier Aldaik hartu zuen haren lekua. Beraz, uztailaren 9an Itziarren jokaturako diren Debarroko finalerdiak ez da Bergara KEko ordezkaririk izango.

### Senior mailako nesken finala martitzenean eta 11nako futboleko final-laurdenak Ipintzan

Senior mailako nesken finala jokaturako da martitzenean, uztailaren 5ean, 20:30ean, Ipintzan. Bestalde, gizezkoen 11nako futbol txapelketari dagokionez, final-laurdenetako partidua jokaturako dira eguaztenean eta eguenean, 19:15ean hasita.

### Uztailaren 9ko gutxituen kirol jaian parte hartzeko izenematea zabalik Kirol Zerbitzuan

Hurrengo zapatuan, uztailaren 9an, gutxituei zuzendutako Denontzako Kirol Jaia ospatuko da Arrasateko Iturripe kiroldegian.

Izenematea Bergarako Kirol Zerbitzuan egin daiteke, uztailaren 6ra arte. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

### Shotokan karate taldearen 10. urteurrena ospatzeko jaialdia zapatuan kiroldegian

Bergarako Shotokan karate taldeak 10. urteurrena ospatzeko jaialdia antolatu du zapatuak. 100 lagun inguru arituko dira bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian izango den jaialdian. Era-kustaldia 17:00etan hasiko da.

## Lokatza taldeak Tourreko porra antolatu du aurten ere

E.M.

Lokatza Ziklismo Eskolak Tourreko porra antolatu du hirugarren urtez. Zapatuan eta domekan izango da zerrendak osatzeko aukera. Hain zuzen ere, bihar, zapatua, San Martin plazan izango dira Lokatzako kideak, 11:00etatik 14:00etara. Domekan, berriz, San Martzialgo zelaietan txirringularitza kinielak bete ahal izango dira, 14:00ak arte.

#### SARI BIKAINAK

Partaideek 15 txirringulariz osatutako zerrenda bete beharko dute eta apustu bakoitzeko 20

euro ordaindu beharko dira. Jaso-takoaren %90 banatuko da sari-tan: %50 puntuaziorik onena lortzen duen zerrendarentzat, %25 bigarrenarentzat eta %15 hirugarren sailkatuentzat.

Tourreko porran parte hartzeko interesa dutenek ondoko tabernetara jo dezakete: Avenida, Maxim's, Nahikari, Usoa eta Zabala jatetxea. Era berean, www.nahikari.com/lokatzak helbidea abian jarri dute antolatzailerak.

Ohiko faboritoez gain, aurtengo Tourrean ezustekoa nork emango duen asmatzea da kiniela irabazteko gakoak.



Tourra zapatuan hasiko da.

MUSIKA/ Bartzelonako taldearen jazz-funk emanaldia izango da gaur gauean Espoloian, 22:30ean

# Asstrio taldearen emanaldiarekin hasiko da gaur 'Udako gauak' programazioa

EDU MENDIBIL

Azken urteotan moduan, *Udako gauak* programazioaren barruan jazz emanaldiak antolatu ditu Udaleko Kultur Zerbitzuak uztaileko egubakoitzetarako. Lehenbiziko emanaldia gaur gauean izango da Espoloian, Asstrio taldearen eskutik.

Esan bezala, Bartzelonatik etorritako Asstrio taldea izango da lehen gonbidatua. Katalanak Estafuko klub ospetsuenetatik pasatakoak dira eta Bergaran ere ezagunak ditugu. Hain zuzen ere, San Martin plazako Irish Pubean emanaldia egin zuten joan den apirilaren 16an.

Dagoeneko disko bat kalera-tu dute, aurtengo udaberriean, *As soon as possible* izenburupean. Groove eta funk-jazz doinuak dira nagusi eta musika kritikariek harrera ona egin diete diskoari. Euren konposizioez gain (*Miquel House* edo *Josep M De Les Calefaccions*), Beatles, Stevie Wonder edo Duke Ellingtonen (*Caravan*)

kantuak joko dituzte gaurko emanaldian. Emanaldia 22:30ean hasiko da eta Asstrioekin batera Laia Cagigal kantaria arituko da.

*Udako gauak* programazioaren barruan beste hiru emanaldi izango dira Espoloian: hurrengo egubakoitzean, uztailearen 8an, Gonzalo Tejada donostiarraren jazz kontzertua izango da. Bill Evansen kantuen bertsiok eskainiko ditu Tejadak; uztailearen 15erako, berriz, Tr3s Hombres taldearen *rhythm n' blues* emanaldia iragarrita dago; eta, azkenik, uztailearen 22an Iruñeko Teresa Zabaltza 5et taldea izango da Espoloian. Jazz emanaldia egingo du talde nafarrak.

Maidar Osa kultura teknikariaren hitzetan, "dagoeneko bosgarren urtez antolatuko ditugu aurtun uztaileko musika emanaldiak. Pozik gaude orain arte jasotako erantzunarekin. Udako gauak girotzeaz gain, jazz musikari tokia egitea da *Udako gauak* programaren helburu nagusia. Eta jendeak ondo hartu ditu jazz emanaldiak aurreko urteotan".



Asstrio taldearekin batera Laia Cagigal kantaria arituko da.

## ZINEMA ABUZTUAN

Era berean, aire libreko zinema emanaldiak egingo dituzte abuztuko eguenetan. Abuztuaren 4an *Las mujeres perfectas* emango dute; hila-

ren 11n *Beckham izan nahi dut*; hilaren 18an *Los padres de éle* eta, azkenik, abuztuaren 25ean *George eta herensugea*. Emanaldiok San Martin plazan izango dira, 22:00etan.

## ORGANO EMANALDIA

Emanaldi bat izango da, abuztuaren 10ean. Jose Luis Etxetxi-piak organo kontzertua eskainiko du San Pedron, 20:00etan.

## 'Aupa, Etxebeste!' filma Donostiako Zinemaldian estreinatuko dute

E.M.

*Aupa, Etxebeste!* filma Donostiako Zinemaldian estreinatuko dute irailean. Asier Altuna *Kixi* bergararra eta Telmo Esnal zarauztarra dira filmeko zuzendariak. Hain zuzen ere, joan den abuztu amaiera aldera hasi ziren *Aupa, Etxebeste!* filma grabatzen eta zenbait sekuentzia Bergaran grabatu zituzten. Herritar asko aritu dira aktore lanetan.

Esan bezala, filma irailaren 15etik 24ra ospatuko den 53. Zinemaldiaren barruan estreinatuko dute. Umorezko filma da *Aupa Etxebeste!*.



*Aupa, Etxebeste!* Bergaran filmatzen hasi ziren, iazko abuztuan.

## LABUR

### Eduardo Arrillagaren 'Sokamuturra' argazki erakusketa Aroztegiko aretoan ikusgai

Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarraren *Sokamuturra* erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegin, 20:00etan. Zuri-beltzeko 24 argazki jarri ditu ikusgai Arrillagak. Erakusketa uztailearen 24ra arte egongo da ikusgai. Aste barruan 18:30etik 20:30era eta zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era izango da zabalik. Domeketan, berriz, 18:30etik 20:30era.

### Txalaparta ikastaroa uztailearen 11tik 21era Arrizuriagan, Jardun elkartearen eskutik

Jardunen eskutik, txalaparta ikastaroa izango da Bergaran uztailearen 11tik 21era. Eskolak astelehenetik eguenera bitartean izango dira, 19:00etatik 20:30era, Arrizuriagan.

Izena emateko epea uztailearen 7ra arte izango da zabalik. Par-taideek 20 euro ordaindu beharko dituzte (15 euro bazkideendako eta langabeendako). Interesatuak Jardunera edo 943 76 36 61 telefonora dei dezakete argibide eske.

# GOIERRI

## AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

# KONDE

## PANADEROKUA



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

# MUJIKA

## FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

E, TXO!

**GAZTE INFORMAZIO GUNEAN  
UDAKO ORDUTEGIA**

Errotalde jauregian dagoen Gazte Informazio Gunetik jakinarazi digute bihar, zapatua, uztaileak 2, bulegoa itxita egongo dela. Bestalde, uztailearen 4tik aurrera, udako ordutegia izango dute: eguenetan 09:30etik 13:30era egongo da zabalik goizetan; arratsalde, berriz, 16:00etatik 20:00etara. Egubakoitzean, goizez bakarrik zabalduko dute 09:30etik 13:30era. Abuztuaren bulegoa bi astez itxita egongo da.

**TELESAILTAKO GIDIOEN  
TAILERRA SAROBEN**

Urnietako Sarobe Arte Eszenikoen Zentroak telesailtako gidioen tailerra antolatu du datorren ikasturterako. Gidoiak euskaraz zein gaztelaniaz idazten irakatsiko dute bertan. Eskolak urriaren 14tik abenduaren 23ra bitartean izango dira egubakoitzean 16:00etatik 21:00etara bitartean. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu telefono honetara: 943 00 80 42.

**IKERKETA HISTORIKORAKO  
DIPUTAZIOAREN BEKAK**

Gipuzkoakoari buruzko ikerketa historikoa egiteko bekak emango ditu Foru Aldundiak. Goi mailako titulazio baten jabe izan eta ikasketak azken zazpi urteotan amaitu izana dira eskaria egiteko baldintzak. Bakarka zein taldeka egin daiteke lana baina bigarren kasuan beka bakarra emango lukete. Eskariak uztailearen 15a baino lehen egin behar dira. Informazio gehiago jasotzeko deitu telefono hauetara: 943 65 58 63/943 11 27 87 (Begoña Irazu/Gabriela Vives).

**GUREGAIK/ BIDAIATZEKO AHOLKUAK****Bidaiatu, baina hainbat gauza kontuan hartu**

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Bidaiatzea kontu atsegina da, baina amesgaizto ere bihur daiteke. Hori gerta ez dadin garrantzitsua da bidaia behar bezala prestatzea; agentziarekin sinatutako kontratua egiaztatzea, besteak beste.**

Bidaia kontratatzen denean, jaso behar ditugun zerbitzuak eta baldintzak zein diren zehaztu behar da. Baliteke agentziak diru kopuru bat aurrez ordaintzeko eskatzea. Praktika hori legezkoa da, baina ezingo du inoiz gainditu bidaiaren prezioaren %40. Bestalde, ez da diru guztia ordaindu behar dokumentu guztiak esku artean izan arte.

Hala ere, gerta liteke, bidaia kontratatu ondoren, aldaketak edo ezeztapenak egotea: bidaia antolatu duen enpresak zein bezeroak eragindakoak. Kasu horietarako, legeak hainbat ordain zehaztu ditu.

Hona hemen hainbat gomen dio bidaiatzerakoan arazorik izan ez dezazun:

1. Konfiantzako agentzia bat aukeratu eta kontratuko baldintzak konprobatu.
2. Beharrezko dokumentu guztiak jaso dituzula eta ongi daudela konprobatu.
3. Bidaian arazoak izan eta momentuan konpondu ezin badira, gorde dokumentuak itzuleran erreklamatzeko. Kexarik baduzu jo ezazu bidaia agentziara.



Bidaia egin aurretik agentziarekin kontu guztiak zehaztea komeni da.

**LOTSABARIK/ Garazi Belastegi****“Eskuzabala izatea asko estimatzen dut”**

I.A.

**Bere eskuzabaltasuna erakutsiz, gurekin kolaboratzeari baiezkua eman dio Garazik. Oporretan dago jadanik eta egun bero hauetako batean galderak hotz-hotzean erantzun ditu, askorik pentsatu gabe.**

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?  
Bainua hartzeko moduan ipiniko nuke herri parean erreka, garbi-garbi.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?  
*Euskal presoak Euskal herri-  
ra jartzen duen pegatina bat daukat ipinita.*

- Telebistako saioren gorrota-garriena? Eta gustukoena?  
Gorrotatu dut *Dia a dia* saioa. Gustuko, berriz, *Goenkale*; egunero ikusten dut.
- Pertsonaia higuingarriena? Eta gustukoena?  
David Beckham higuingarria da, eta bere harrokeria jasanezina. Bestalde, gustuko dut Oinatz Bengoetxea pilotaria; pilota bera ere gustatzen zait kirol moduan.
- Zerk amorratzen zaitu?  
Faltsukeriak
- Zer estimatzen duzu besteengan?  
Eskuzabala izatea
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?  
Familiari, lagunei eta osasunari; horiek garrantzitsuak dira pertsona baten bizitzan.

- Zure bertute bat? Eta akats bat?  
Bertutea, eskuzabala naizela; akatsa, berriz, oso jenio txarra dudala.
- Zelan ligatzen duzue gazteok?  
Tabernetan; trago batera gonbidatu eta gero gerokoak.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?  
Alaia, eskuzabala eta ni maitate nauena, noski.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?  
Edozein tokitara lagun batekin edo bikotearekin
- Etorkizunerako amets bat?  
AEBak ezagutu nahi nituzke.

ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBHko 4. maila • ZALETASUNAK: Paseatzea eta lagunekin egotea • LIBURU BAT: *Chocolatoski* • FILM BAT: *Troya*

MUSIKA TALDEA: Kauça • KIROL TALDEA: Reala

**ETXE BERRIA****ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09**POL-POL  
Taberna**

943 76 07 78. Bergara

MINGAINARITIRAKA



Amaia  
Aldai

LIBURUTEGIKO LANGILEA

Psikologian lizentziaduna da Amaia, baina azkeneko urte eta erdian liburutegian dihardu lanean. Eibartarra da, eta kasualitatez, San Joan egunean egin genuen berarekin hitzordua; herrian jaiak ziren arren, lanera etorri behar...

**Ze liburu gomendatuko zenidake udan irakurtzeko?**

Biblioporrak gida atera dugu eta hainbat gomendio egiten ditugu. Nik neuk Thomas Mann-en *La montaña mágica* eta Joan Mari Irigoien-en *Komunista.com* gomendatuko nituzke.

**Zeuk ze diharduzu irakurtzen momentu honetan?**

Rosa Regas-en *Luna lunera*.

**Idazle gustukoena?**

Hainbat ditut: Irigoien, Regas, Laura Mintegi...

**Zure lanean, zer gustatzen zaizu gehien?**

Jendearekin egotea, gomendioak ematea, laguntzea...

**Eta gutxien?**

Lan mekanikoak ez zaizkit batere gustatzen; liburuen kodeak konprobatzen ibiltzea, esaterako.

**Bergararrek ze liburu irakurtzen dituzte gehien?**

Nobelak, gaztelerazkoak; gazteak dira euskarazko liburuak gehien hartzen dituztenak.

**Egunkarian, zer irakurtzen duzu lehenengo?**

Azala eta iritzien atala. Ondoren, titular guztiak irakurtzen ditut, eta azkenik, interesatzen zaizkidan albisteak.

**Bizitzeko toki bat?**

Eibarren oso gustura bizi naiz.

**Eta oporretarako?**

Mendi aldea; Nafarroako eta Asturiasko mendi aldea, adibidez.

**Konta egiguzu asteburu baterako zure plan ideala.**

Zapatuan mendira joango nintzateke, egun-pasa; lasai-lasai afaldu eta domekan, berriz, mendian bueltatxo bat egin, bazkaldu, eta arratsaldean, zinemara.

**Ze film ikustera?**

*Frida Kalho*.

**Zerk amorrarazten zaitu?**

Jendearen arteko amorrak eta eztabaida itxiak ikusteak.

**Eta zerekin hasten zara pozez saltoka?**

Jaietako eta lagun arteko giro onarekin.

**Amets bat?**

Denok ondo bizitzea, borroka larregi barik.

AINZANE IRIZAR

KANPOTARRAKBERGARAN

DIOUMA DIAGME

30 URTE / SENEGALDARRA / ORAIN DELA LAU HILABETE ETORRI ZEN BERGARARA

“Euskara ikasteak herritarrekin harremanak egiteko asko lagunduko didala uste dut”

AINZANE IRIZAR

Senegalgo egoera ekonomikoa ez da batere ona; horixe izan zen Diouma Euskal Herrira etortzearen arrazoia. “Lan bila eta etorkizun hobe baten bila etorri nintzen hona”, azaldu digu Dioumak. Orain dela hiru urte izan zen hori; Senegaldik irten eta Saharara joan zen; handik, itsasoz, Kanariar Uharteetara iritsi zen, beste hainbat afrikar iristen den moduan. “Oso gogorra izan zen, baina zorte handia izan nuen eta dena ondo atera zitzaidan”, diosku.

“Orain dela lau hilabetera arte, Bizkaian bizi izap naiz; hantxe Senegalgo lagun batzuk bizi ziren eta horregatik etorri nintzen Euskal Herrira”, azaldu digu Dioumak. Lau hilabete besterik ez darama Bergaran bizi izaten. “Aspalditik ezagutzen dut Bergara; izan ere, kaleko saltzaile jardun dut denbora luzean, eta ia Euskal Herri osoa ezagutu dut”, esan digu Dioumak.

Saltzaile ibili zen garai hartan, bergarar askorekin egin zuen harremana eta horietako lagun bati esker lortu zuen lana, Bergaran: “Bergarako lagun batek bere nagusiarekin berba egin zuen, eta hari esker lortu nuen oraingo lana, herriko lantegi baten. Oso gustura nabil”, diosku Dioumak. Gainera, bere egoera legezatzeko ere laguntasun osoa eskaini dio enpresak.

“Benetan asko eskertzen diet lagundu didaten eta laguntzen didaten guztiei; Euskal Herrira iritsi nintzenetik ez dut sekula inolako arazorik izan, eta beti hartu izan naute oso ondo joan naiten toki guztietan. Oso jende jatorra dago hemen”, azaldu digu.

Bergarara etorri zenetik, Lamaño-Etxeberrin bizi da eta han ere oso gustura dago: “Etxean bezala sentitzen naiz”, dio.

EUSKARA IKASTEN

Domekero, Udalak antolatutako euskara ikastarora joaten da Diouma. “Ikastea gustatzen zait, edo-


“Aspalditik ezagutzen nuen Bergara; izan ere, kaleko saltzaile ibili nintzen garai baten”

zer ikastea dut gustuko, eta Euskal Herrian bizi naizenez, euskara ikasi behar dudala uste dut. Gainera, harremanak egiteko ere asko lagunduko dit”, azaldu digu. Oso nekeza egiten zaio euskara ikastea, baina “poliki-poliki” (bere hitzetan, hori esaten ikasi du dagoeneko), lortuko duela esan digu. Asteburuetan Bilbora joaten da Diouma, ez da Bergaran irte-

ten: “Bilbon Senegalgo lagunak ditut eta eurekin pasatzen dut asteburua; bueno, domeka goizetan Bergarara etorri behar izaten dut, ikastarora”.

Behin eta berriro esan digu Dioumak oso gustura bizi dela hemen, baina, normala denez, herrimina dauka: “Hiru urteotan ez ditut nire senitartekoak ikusi, eta hori oso gogorra da, benetan”. Seme txikia ere badauka, eta ez du ikusi ordutik hona.

Orain, baina, bere egoera legezatu duenez, izango du bisitan joateko aukera; laster joateko esperantza dauka. Etorkizunaren gainean, oso argi ditu gauzak: “Ni senegaldarra naiz, eta nire helburua da urte batzuk barru hara itzultzea bizi izatera; beharregatik etorri nintzen hona”.



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52  
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

eej euskalgintza elkartearen fundazioa

OGIZUN  
koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

**BONOFOTOA**

XV. mendekoa den Jauregi etxeko hozka txikiko erliebean hainbat erregeren irudiak ageri zaizkigu; zenbat dira guztira, 12, 14 ala 16?



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**MARIA ISABEL MAORTUA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Maria Isabel!  
Galderaren erantzun zuzena: **Bolua**.



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Skip detergentea**

36 ontzitxo + 5 doan

**9,49 €**

1.579 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



**ERRETRATUZAHARRA**

BERGARA

**Errotagain taldea, 1992**

**B**ukatu da aurtengo areto futboleko txapelketa, Aurtengoa 19. ekitaldia izan da eta Errotagain eta All Blacks taldeak izan ditugu liga eta kopako txapelketak, hurrenez hurren. Ondoren, txapeladunen arteko norgehiagokan, All Blacks taldea Errotagaini nagusitu zitzaion.

Urte hauetan guztietan Errotagain beti egon da hor aurrean. Alboko argazkia 1992. urtearen ingurukoa da. Hauek dituzue sasoi hartan taldea osatzen zuten jokalariek, ezkerretik eskumara:

Zutik: Ivan Iturrikastillo, David Romero eta Joseba Villa.

Jarrita: Carlos Romero, Rafa Villa, Ruben eta Mateos.

Argazkia: BKE artxiboa.



**ADI, IRAKURLE!**

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

**FARMAZIENTXANDA**

- EGUBAKOITZA, 22**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- ZAPATUA, 23**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- DOMEKA, 24**  
MOZOS. Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- ASTELEHENA, 25**  
CAMACHO. Oxirondo 4 . . . 943 76 11 74
- MARTITZENA, 26**  
ZABALA. Barrenkalea 25. . . 943 76 16 87
- EGUAZTENA, 27**  
GUALLAR. San Antonio 5 . . 943 76 11 05
- EGUENA, 28**  
ESTELLA. Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63

**TELEFONOAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**

- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa . . . 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa . . . 943 76 62 46
- Ertzaintza . . . . . 943 53 47 20
- Osasun etxea . . . . . 943 76 24 40
- Asepeyo . . . . . 943 76 16 43
- Pakea . . . . . 943 76 13 49
- Angiozarko medikua . . . . 943 78 90 27
- Antzuolako medikua . . . . 943 76 62 23
- Odol emaleak . . . . . 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

**GARRIAOK**

- Taxiak . . . . . 943 76 19 50

**UDALA**

- Bergarako Udaletxea . . . . 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea . . . . 943 76 62 46
- Udal Artxiboa . . . . . 943 77 91 32
- Igerilekuak . . . . . 943 76 20 51
- Kultura etxea . . . . . 943 77 91 58
- Liburutegia . . . . . 943 77 91 62
- Kiroldegia . . . . . 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza . . . . . 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**

- Epaitegia . . . . . 943 76 14 92
- Erregistroa . . . . . 943 76 13 15
- Jardun . . . . . 943 76 36 61
- Postetxea . . . . . 943 76 26 85
- Bedelkar . . . . . 943 76 04 68
- Akulu AEK . . . . . 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia . . . . . 943 76 44 53
- Bergarako notariatza . . . . . 943 76 10 73

**MEZAK**

**URTE-MEZAK**

- Santa Marina**  
Hileko bigarren domekan,  
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**  
Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean eta 12:30ean.

**URBANOAK**


- San Lorentzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,  
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,  
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20  
eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildidi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,  
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50  
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik),  
17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00  
eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Korde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.



## ATREBENTZIAEZPADA/ Nola antolatzen dituzue gauzak San Martzialgo erromeriara joateko?



ISABEL BARQUERO



PAGO EGUREN



NAGORE SANZ



ALBERTO SANTAMARIA



AINTZANE LARRAÑAGA



EMILIO UZIN

Umeak ditudanetik ez naiz joan, baina lehen ongi antolatzen genuen lagun artean dena: astebete aurretik lekua hartu, erosketak denon artean egin edo jatekoa enkargatu... Egunean bertan dena gertu izateko.

Lehen koadrilan joaten ginen, baina adina eta konpromisoak direla, laga egin diogu joateari. Bakoi-tzak ardura batzuk hartzen zituen: janaria, mahaia... Jatekoa elkar- tean prestatzen zuten.

Ni orain dela gutxi bizi naiz Bergaran eta ez naiz inoiz joan, eta aurten ere ezin naiz joan, umeagatik. Muti- laren koadrilakoek furgone- ta baten igotzen dituzte gauza guztiak, gero jatekoa bertan gertatzeko.

Lana dela eta urte asko dira ez naizela San Martzialera joan; aurten ere oporrak ditut, baina kanpora noa. Badakit orain mahaia- k aurrez eskatu behar direla, baina ez naiz sekula ardu- ratu gauzak gertatzeaz.

Koadrilan joaten gara. Hila- bete eta erdi lehenago mar- katzen dugu sokekin eta gero astero zaindu; mahaia zapatuan igotzen dugu; eta domekan, etxean gertatu- taokokin autoan joaten dira batzuk eta oinez besteak.


Bueltatxo bat ematera joa- ten naiz arratsalde partean, giroa gustuko dudalako, baina ez dut ezer gertatu behar izaten. Semeak lagu- nekin joaten dira eta euren antolatzen dute, baina ni ez naiz inoiz koadrilan joan.

## TXALOKETATXISTUAK



**TXISTUAK EDUKIONTZIAK HUSTEKO ORDUTEGIA** San Lorentzon bizi den herritar batek deitu digu, edukiontzia- ken gainean kexa plazaratzeko. Haren esanetan, goizeko sei eta erdiak inguruan hustu izan dituzte batzuetan beira jasotzeko edukiontzia- k. "Ordu horretan horrenbeste zarata ateratzerik badago?", dio. /E.M.

## BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



— Gure amandriak, arintzen asi zanian, majo jotzen zeban panderua lapikoko tapiakin.

JON IRAEGI

## BESTEKEESANA

“ Ibarrean 24 organo ditugu, oso kontzen- trazio handia da, Gipuzkoan handiena, ibar osoa kontuan hartuta. Herri gehien dituen orga- noa Oñati da; zappi ditu eta Berga- rak sei -partikularrak kontuan har- tzeke-. Arrazoia da eliza asko dau- dela, musikarako zaletasun handia eta garai baten diru asko zegoela. XIX. mende bukaeran eta XX.aren hasieran diru asko egon zen eta horrek ekarri zuen aurretik zeuden organoak berriagoek ordezkatzea. Zaharrenak dira Bergarako San Pedro parrokiakoa eta Aretxabale- tako Kontsoiazio monasteriokoa; 1889koak dira. Bestalde, gehienak dira XIX. mende bukaeran hasi eta gerra arterakoak”.

**IÑIGO ALBERDI / Organo jotzailea 'Asteleheneko Goienkaria' /05-06-27**

## HAUGIROA!

MINIMOA 15 °C  
Egubakoitza, 24

MAXIMOA 37 °C  
Astelehena, 27

ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>) 1,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 22	35 °C	18 °C	— l/m <sup>2</sup>
Eguena, 23	36 °C	18 °C	— l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 24	28 °C	15 °C	1,2 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 25	23 °C	18 °C	0,4 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 26	28 °C	19 °C	— l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 27	37 °C	18 °C	0,2 l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 28	31 °C	18 °C	— l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

## BERAIEKDIÑOĖ/ Aitziber Azkondo



Publizitatea imitatu

**B**adakigu publizitateak izugarri eragiten digula eta askotan konturatu ere ez gara egiten.

Nahiago dugu izen ezaguneko jantziak, eta izen handiko auto- ak erosi ezegunak baino. Kontsumista hutsak bilakatu gara eta beharrezkoak ez direnak

beharrezkotzat jo- tzen ditugu. Telebis- tak zer ikusi handia du. Publizitatea eta telebistan agertzen diren spoten inguru- an berbetan izan gi- nen lagunok astebu- ruan. "Ikusi duzu ho- nen eta bestearen azken iragarkia? Tximu bat neska poli- t batekin ligatzen, loteria toka- tuz gero amonak lan egingo due- la dioena, edo loteria irabaziz gero gure arazo guztiak (estresa, amodio arazoak eta abar) kon- ponduko direla dioena?"

Sormenaren magia: sinesgai- tza sinesgarri egiten digute. Volkswagen Golf berriaren azken iragarkiaren ondorioekin harrিতa nago. Spotean bi haur agertzen dira etxe atari bateko eskaileratan jarrita. Batak auto- ko martxak aldatzen dagoela egi-

ten du eta besteak arnasari eus- ten dio motorraren zarata imita- tuz, gorri-gorri eta ito beharre- an, DGS abiadura-kaxa berria- ren abantailak nabarmentzeko. Iragarkiaren amaieran, adin txi- kiko horren irudi bat agertzen da kongestionatuta eta begiak bere tokitik atera beharrean.

Haur ugari iragar- kiko mutikoak egiten duena egiten dihar- dutela esan zidaten. Nork arnasari gehia- go eutsi haurren arteko norgehiagoka berria. Zoramena!

Dagoneko auto etxeak jaso ditu hainbat isun eta epaitegietan ari da.

AUC Komunikazio Erabiltzaile- en Elkarteak haurrak arrisku egoeran jarri ditzakeela esan du, moralki eta fisikoki kaltetuz. Iritzi asko azaldu dira erabaki honen kontra, besteak beste, zentsura dela eta Ameriketako Estatu Batuen eraginez kutsatu- ta gaudela esan dutenak. Ni zentsuraren kontra nago, are gehiago AEBen hipokresiaren kontra, baina ez nuke nahi nire semea edo alaba horrelakoetan ikustea.

**"Kontsumista hutsak bilakatu gara eta beharrezkoak ez direnak beharrezkotzat jotzen ditugu"**

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Irati Agirreazaldeg  
Oihana Elortza  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
8.680 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 1a / 250. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Herriko alde zahar osoko lurzorua berritu egingo dute

AINZANE IRIZAR

Ekainaren 17ko Gobernu batzordean onartu zuten alde zaharreko azpiegiturak eta lurzorua berritzeko urbanizazio proiektua. Buztinzuri kaleko zati baten 2003an egin zituzten lan horiek, eta Udalaren asmoa da alde zahar guztia berritzea.

Orain dela ia bi urte hasi zituzten Buztinzuri kaleko azpiegiturak eta lurzorua berritzeko lanak. Kale horretako etxebizitza berrietako urbanizazio lanekin batera, lurzorua eta azpiegiturak berritu zituzten enpresa eraikitzaileek. Adokina eta harrizko losak jarri zituzten Buztinzurin.

Alde zaharreko gainerako kaleetan ere lurzoru mota bera jarriko dute; espaloia eta errepi-dea maila berean egongo dira, oztopo arkitektoniko barik.

Buztinzuri kalean, plazatik eskola parerainoko zatia egin barik dago oraindik; zati horixe izango da hurrengo egingo dutena. Udaleko arduradunek espero dute urtea amaitu aurretik hastea lanekin.

Gero, Kalebarren, Herriko Plaza eta Ondarre geratuko dira egiteko. Herriko Plazako lurzorua eta azpiegiturak berritzeko



Urtea amaitu baino lehen hasiko dituzte Buztinzuriko lanak.

ardura Eusko Jaurlaritzak hartuko du. Izan ere, erreka zabalteko lanekin batera egingo dira berritze lanak.

Udalaren nahia da etorkizunean alde zaharra oinezkoendako izatea. Sagastiko errepi-deak, gainera, horretarako aukera handiagoa ematen du.

### AZPIEGITURAK BERRITzea

Esan bezala, egingo dituzten lanen helburua ez da bakarrik lurzoru berria jartzea; helburu garrantzitsuenak da azpiegiturak berritzea: ura, estolderia, telekomunikazioak, argindarra, argiteri publikoa... Azpiegitura guztiak berrituko dituzte.

## Gaztetzokoen azkeneko irteera

Astehenean egin zuten Gaztetzokoko neska-mutikoen ikasturteko azkeneko irteera. Gortizera joan ziren. Hantxe, body board egin zuten, surfaren antzerako kirola; ondoren, tirolinan ibili ziren. Arratsaldean, kanoan ibiltzeko eta urpekaritza praktikatzeko asmoa zuten, baina, eguraldi txarra egin zuten eta ezinezkoa izan zen. Hortaz, arku tiroketa egiteko aukera izan zuten. 16 neska-mutiko joan ziren irteera horretara./A.I.

## KIROLA

## Angiola Ipintzako final-laurdenetan

AINZANE IRIZAR

Bergarako Ipintzako futbol txapelketan dihardu Antzuolako Angiola taldeak. Lau partidu jokatu dituzte dagoeneko eta final-laurdenetarako sailkatu dira. Datorren astean, uztailaren 6an edo 7an, jokatuko dute finalerdietarako sailkatzeko partidua.

Aurreko astean 4 eta 0 irabazi zioten Elgetako Fo-fo-fo iazko talde irabazleari. Andoni Azkargortak bi gol sartu zituen eta Josu Agirrek eta Iñigo Pagaldaik bana. Partidu hori irabazita, euren taldeko lehenengo geratu dira antzuolarrak eta final-laurdenetarako sailkatu; uztailaren 6an edo 7an jokatuko dute final-laurdenetako partidua.

### ANTZUOLAR ETA ANGIOZARTARRAK

Angiola taldeko jokalarik gehienak antzuolarrak diren arren, taldearen izenak berak dioen moduan, angiozartarrak ere badira taldean; baita bergarar bat ere.

Honakoek, hain justu, osatzen dute taldea: Andoni Azkargorta, *Supi*, *Txarli*, *Txapi*, *Zipri*, Manolo Vargas, *Pildi*, Jabi Peñalba, Mikel Bargiela, Gotzori Zabalo, *Palomo*, *Mendia*, *Uztarri*, *Bizka*, Xabi Biteri eta Josu Agirre antzuolarrek, Fernando Agirre-beña bergararrak eta Aitor eta Iñigo Pagaldai angiozartarrak.

Aipatzekoa da, bestalde, Angiola den arren Ipintzako txapelketan diharduen herriko talde bakarra, Antzuolako jokalaririk ugari dabiltzala txapelketa horretan parte hartzen, Bergarako taldeetan.



Antzuola, Angiozar eta Bergarako hemeretzi jokalarik osatzen dute Angiola taldea.

## LABUR

## Herriko udaleku irekietan 90 bat umek jardungo dute gaurtik, egubakoitza

Gaur, egubakoitza, hasiko dituzte udaleku irekietako ekitaldiak eta uztailaren 14an bukatu. Guztira, 92 umek parte hartuko dute: begiraleak, berriz, zortzi izango dira, eta Goretti Fernandez izango da guztien koordinatzailea. Besteak beste, honako ekitaldiak antolatuko dituzte bi asteotarako: hilaren 7an, San Fermin eguna ospatuko dute; 11n, Antzarraren joko egingo dute; Euskararen Eguna ospatuko dute hilaren 12an. Hilaren 14an, berriz, udalekuei amaiera eta jaiei hasiera emateko, herri bazkaria egingo dute.

## IRAKURLIAREN TXOKUA

### SERIO TASUNEZ JOKATZEA

Antzuolako uholdeei irtenbidea aurkitzeko orduan, gutxieneko seriotasun batekin jokatu behar da. Eta hau, aldizkari honetan Patxi Olabarria jaunak hain eztabaidatsua den Antzuolako errekarri buruz eginiko komentario bategatik esaten dugu.

Horrelako gai garrantzitsu bati buruz hitz egiterakoan, honi buruz gutxieneko ezagutza bat ere eduki behar da, eta ez bati gogoan jartzen zaion lehen gauza esan, aipatutako komentarioan bezala, gaiari buruz dagoen informazio mordoa dagoela eta Antzuolako alderdi politiko eta talde sozialen artean eztabaidatua dela kontuan hartu gabe.

Zuk, Antzuolako plazaren funtzionalitatea frogatzeko, alde aurretik, erreka joango den tokian, baila batzuk jartzea eskatzen duzu, antzuolarron segurtasunari baino garrantzi gehiago emanaz.

Patxi Templeque herrira eginiko bisitan, bertako plaza ikusi duenean, Antzuolako etorri zaio burura, baina ez du kontuan izan herri horretako plaza azpitik ez dela errekarik pasatzen, hau da, ez dira uholderik sortzen bertan. Baina, Antzuolan bai. Egia esan, gure herriko Surpe tabernara inguratzen garen bakoitzean errekarri duela urte batzuk egin zitzaion estutzea ikustean, *tenblekea* da sentitzen duguna. Eta, gaur da eguna, honi buruz, zure aldetik salaketa bat bera ere ez duzula egin. Garbi dago, gai honen inguruan pausua aldatu duzula.

Azkenik esan, horrelako bidaia gehiago egiteko beharra ez izatea espero dugula.

BENJAMIN ARANA  
M<sup>a</sup> JESUS MADARIAGA  
J. IGNACIO MADARIAGA



## Saski berriak eskolako jolastokian

Saskibaloian jokatzeko bi saski berri jarri dituzte Herri Ikastetxeke jolastokian. Altxairuzkoak dira biak, eta bandalismoari aurre egiteko saski bereziak dira: batetik, esan bezala, altxairuzkoak direlako, eta bestetik, saskiaren egitura bateratua delako; hau da, dena pieza bakarrean egindakoa da. Azkenean urteotan kalte ugari eragin dituzte ezezagun batzuek jolastokiko saskietan, eta oso hondatuta zeuden saski zaharrak. Berriok 3.300 euro ordaindu ditu Udalak./A.I.

## JAIK

# San Martzialetako ospakizunekin jarraituko dute oraingo asteburuan Lizarraga auzoan

AINTZANE IRIZAR.

**Atzo, eguna, izan zen San Martzial eguna, eta majo ospatu zuten Lizarragako auzotarrek. Besteak beste, auzo afaria eta mus txapelketa izan zituzten. Baina, urtero bezala, ospakizunak asteburuan ere egingo dituzte. Erromeriak, herri afaria, meza, eta abar izango dira.**

Bihar, zapatua, herri mailako plater tiroketa txapelketa jokatuko dute, 16:30ean. Aurrez, txapelketa horretarako probak egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek; goizeko hamaiketean izango dira proba horiek.

Bostetan, umeendako jolasak egongo dira eta 18:30ean txokolate jana. 20:00etan, trikitilarien saioa izango dugu eta 21:00etan herri afaria egingo dute. Gaueko hamai-

ketan, berriz, gau osoko erromeria hasiko dute, trikitilariekin.

Domekan txistulariekin hasiko dituzte ospakizunak, 11:00etan. 11:30ean, berriz, Aiastui Peñak antolatutako txirrindulari iguera jokatuko dute, aurtengo azkena. 12:00etan meza nagusia izango dugu; Antzuolako abesbatzak parte hartuko du hantxe. Ondoren, salda banatuko dute herriarren artean, eta erretiratuen-

dako luntxa egongo da. 13:00etan, herriko dantzarien saioa izango dugu.

Dantza saioa bukatutakoan, Aiastui Peñaren *challenge*-eko sariak banatuko dizkiete neska-mutikoei.

Arratsaldeko bostetan, Jon Gardokirekin erromeria izango dugu; horrekin eta etxafuego jaurtiketarekin amaituko dira aurtengo San Martzial jaikak.

## LABUR

### Arrolak Urdaibai ingurura antolatu du irteera eta hondartzara ere joango dira

Uztailaren 10erako, domeka, antolatu dute uztaileko irteera Arrolako mendizale elkarteak. Urdaibai inguruan ibiliko dira; lehenengo, Atzarreko San Pedrorra igoko dira eta handik Akorda herrikara jaitsiko dira. Hantxe hamarretakoa egingo dute. Ondoren, Laidako hondartzara joango dira.

Irteera horretan parte hartu nahi dutenek hilaren 5ean, martitzena, eman beharko dute izena Arrolaren egoitzan, 19:00etatik 20:00etara. Umeendako doan izango da irteera; nagusiek, berriz, 5 euro ordaindu beharko dute.

### Mairuaren Alarderako entseguak datozen bi asteetan egingo dituzte, pilotalekuan

Aurrera doaz Mairuaren Alarderako prestaketak. Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteak jakinarazi digunez, datozen bi eguztenetan, uztaileak 6 eta 13, egingo dituzte alarderako entseguak; Udal Pilotalekuan izango dira, 21:00etan. Elkarteak arduradunek adierazi digutenez, oraindik danbor jotzaileak falta zaizkie; hortaz, parte hartu nahi izanez gero, frontoian duzue hitzordua.

Aipatzekoa da, bestalde, Alardearen egunean Iparragirrerren bost bertsoak abesteko aukera izango duela jendeak; denek ondo ikusi eta irakurtzeko moduan jarriko dituzte antolatzaileek.

### Atzegi Eguna antolatzen lagundu zieten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete

Maiatzaren 28an Antzuolan ospatu zuten Atzegi Atzeratu Psiki-koen Gipuzkoako Elkartearen Eguna. Egun harekin, elkartearen helburua zen atzeratuen eta euren senitartekoaren errealitatearen berri ematea herritarrei.

Egun horretako ekitaldiak antolatzeke hainbat herritar eta talderen laguntasuna izan zuten Atzegiko arduradunek. Horregatik, guztiei eskerrak eman nahi izan dizkiete. Hona hemen talde eta elkarte horiek: DYA, Antzuolako Udala, Kutxa, trikitilariak, Herri Ikastetxea eta batez ere marrazkiak egin zizkieten umeak, eta mahaia jartzen eta bazkarian lagundu zieten herritarrek.

**ANTZUOLA**

Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Billegia: 943 78 70 40

*Tomas Gezalaga*

Apainketarako eta  
industriarako pinturak

Paper margotuak  
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**GAILUR**

taberna eta  
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

*Tomas Gezalaga*

Zoruen kutxilatze  
eta  
bernizatzea

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko uztailaren 1a / 234. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Ika-mika Aralarren eta EAJ-EAren artean, inbertsioak direla eta

IRATI AGIRREAZALDEGI

Apirilaren hasieran onartu zuten ia bost milioi eta erdi euroko Udal aurrekontua, Aralarren aurkako botoekin. Kopuru horretatik lau milioi euro inguru inbertsioetarako erabiliko dituzte. Inbertsio horien berri emanez Udalak esku-orri bat banatu du herrian.


Orain dela bi urte bezala postontzietan banatu du Udalak aurtengo aurrekontuen berri ematen duen esku-orria. Atalez atal azaltzen da zein inbertsio zehatz egingo dituzten.

Diru gehien Hirigintza eta Ingurumen batzorderako erabiliko dute; aurrekontuaren %66,07; gutxien, hezkuntzarako, %1,12.

Udaletik jakinarazi digutenez, esku-orri hau kaleratzearen eta banatzearen arrazoia da herri-tarrek inbertsioen gaineko informazioa jasotzea. "Nahi dugu elgetarrek jakin dezaten zertan gastatuko dugun aurrekontua, horregatik etxe guztietara banatu dugu", esan digu alkateak.

### ARALAR EZ ADOS ESKU-ORRIAREKIN

Aralar alderdiak ez du begi onez ikusi esku-orri hau ateratzea. "Inongo batzordetik pasatu gabe inbertsioen gaineko esku-orria banatzea erabaki du EAJ-EAK. Helburua ez da herritarrak informatzeko, Udala erabili dute publizitate egiteko. Ez zaie axola aurreikusten dituzten inbertsio eta diru sarrerak ez betetzea.



Pagatzako industrialdearen urbanizaziorako izango da diru kopuru handiena: 1.554.040 euro.

Nahiago du herritarrak nahastea", dio Aralarrek.

"Aralarren berritsukeria Udalean darabilen jokabidearekin kontrajarria da. Herri ordezkari arduratsuak eta errealistak izan beharrean, gertakizunak nahasten eta gauzatzen ari garen lortzen eta hobekuntzak itzaltzen dituzte", esan du EAJ-EAK.

Aralarrek, zaila ikusten du aurtengo inbertsioak osotasunean betetzea. "Alondiga berriaren proiektua, udaletxea berritzeko proiektua, Artekalako aparkalekuak edo kalea garbitzeko makina erostea datorren urtera arte ez direla egingo uste dugu".

EAJ-EAK aurkakoa esan du prentsa ohar batean: "Elgetan

martxan dugun inbertsio egitarauan normalak diren zailtasunak izan arren, legealdi honetarako hartutako konpromisoak betetzen ari gara: Espaloia Kafe Antzokia, Eguneko Zentroa, haurtzaindegia, saihebidia, Pagatza handitzea, Maalako parkea, Polikiroldegia berritzea, Torrealdea eta Uriburuko etxebizitzak....

## LABUR

### Erretiratuen irteera Arratera uztailaren 14an


Elgetako erretiratuak Debarrenen beste hainbat erretiraturarekin elkartuko dira Arraten uztailaren 14an. Meza eta jokoak izango dituzte goizean eta bazkalostean, dantzaldia eta sari banaketa. Joan nahi dutenek hilaren 7a baino lehen jakinarazi beharko diote Miren Billarri.

### KZgunean bi ikastaro antolatu dituzte uztailerako

KZguneak bi ikastaro eskainiko ditu uztailaren foroen eta FAQen gainekoa izango da lehena, uztailaren 6an 11:00etatik 13:00etara bitartean. Bigarrenak, postal bat bidaltzen irakatsiko die tutorak ikasleei. Ikastaro hau uztailaren 20an izango da 10:00etatik 11:00etara.

### Iraitz Lazkano Eibarko Txistulari Bandan

Eibarko Txistulari Bandak bi kide berri aurkeztu zituen San Juan bezperan. Horieta ko bat elgetarra da, Iraitz Lazkano. Eibarko Musika Eskolan dihardu Elena Perezekin txistua jotzen ikasten, eta ikasleei aukera ematen diete Txistulari Bandan parte hartzeko. Bandarekin estreinako saioa San Juan zortzikoa jo zutenean egin zuen.



**OSMA**  
PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salvador kalea 19 behea • 20690 ELGETA  
Tel.: 943 768 127  
Mobila: 677 032 739

**BOLINAGA**  
METALAK

**BOLINAGA**

SALVADOR 7  
ELGETA 20690  
GIPUZKOA  
TEL: 943 76 80 64  
FAX: 943 76 83 01

ELKARRIZKETA

MARTA BARRACHINA ETA IÑAKI EGIAZABAL

“Gizon eta emakumeek osatutako familia aldarrikatu dugu Madrilen”

I.A.

**E**kainaren 18an Familia Foroak antolatuta manifestazioa egin zen Madrilen familiaren alde. Marta Barrachina eta Iñaki Egiazabal bertan izan ziren alaba Mariarekin, familiaren izaera aldarrikatzeke.

**Nolatan joan zineten Madrigo manifestaziora?**

Guretzat oso garrantzitsua den arrazoi bat, familia, defendatzeko manifestazioa zelako joan ginen. Gainera, ez zuelako inongo alderdi politikok antolatu.

**Zein izan zen manifestazioaren aldarrikapen nagusia?**

Familiari bai izan zen manifestazioaren leloa; emakume eta gizonen arteko ezkontza defendatzea.

**Nolakoa izan zen manifestazioa?**

Giro onean egin zen manifestazioa. Gehienok senar-emazte gazteak ginen, seme-alabekin joandakoak. Familiaren aldeko oihuak izan ziren nagusi.

**Manifestaziorako deia egin zuten Familia Foroak homosexualen arteko ezkontza arbuiazen du. Zer diozue?**

Gure ustez, homosexualen arteko loturak legezta daitezke, baina horri ezin zaio ezkontza deitu. Ezkontza, kultura guztietan, emakume eta gizon baten arteko batura izan da beti; espeziea irauarazteko egina. Beraz, ez da batura arbuiazen, ezkontza baik. Gu kristauak gara eta elizak dio pertsona guztiak onartu behar direla diren bezala. Bestalde, defendatu genuen umeek aita eta



Marta eta Iñaki euren seme-alaba Martina eta Mariarekin.

ama bana izateko daukaten eskubidea, hori baita naturala. Umeek amaren eta aitaren irudia behar dituzte, bakoitzak gauza ezberdin bat emango diolako; bi ama edo bi aita izango balitu alderdi bat ezagutzea ukatuko litzaioke ume horri.

**Beraz, adopzioa ere ez da zilegi zuentzat?**

Ez gara gu eskubidea dugunak umeak izateko; umeak eurak dira ama eta aita edukitzeko eskubidea dutenak, eta eskubide hori ezin zaie ukatu; aitaren eta amaren irudia beharrezkoa dute.

**Manifestazio harekin ezer lortuko duzue?**

Gure asmoa zen erakustea bagaudela hainbat familia beste era batera pentsatzen dugunak. Homosexualak hitz egiteko aukera dute, baina baita guk ere. Hala ere, ez dugu uste Gobernuak ezer aldatuko duenik. Eskatzen duguna da Gobernuak entzun dezala familien hitza. Gu geu ez gara Familia Foroak kide, baina hark ordezkatzeko ditugu hainbat eta hainbat familia, eta alde horretatik haren jarrera ere kontuan hartu beharko litzateke.

ASIALDIA ETA KIROLA

Uda kanpainen 56 lagunek dihardute

I.A.

Uda Kanpaina astelehenean jarri zuten abian. Aurten honako zerbitzuak eskainiko ditu Udalak: aisialdia, multikirola, tenisa eta tay-chi-a. Guztira, 54 lagunek hartuko dute parte. Aste hasieran ekin eta uztailean barrena izango dira ikastaroak.

Aisialdiko taldean 3 eta 6 urte bitarteko 18 haurrek eman dute izena. Bi txandatan parte hartzeko aukera eskaini zuten eta bietarako osatu dira taldeak. Begirale lanetan Nagore Oianguren eta Maialen Elortza elgetarrek jardungo dute.

Multikiroleko jardueraz Josu Etxaniz elgetarra arduratuko da. 6 eta 12 urte bitarteko 13 ume-ko taldea izango du bere kargu.


Goizetan multikirolean jardun ostean, Josuk tenis eskolak emango ditu arratsaldeko pilotalekuan. Hain justu, 12 eta 16 urte bitarteko 11 gaztetxo dau- de beste talde honetan.

Nagusiagoek tay-chi egiteko aukera izango dute. Ikasturte osoan barrena eskaini dute zerbitzu hau eta udan ere jarraituko du 12 laguneko taldeak Asun Martinezekin.

**HAINBAT IKASTARO BERTAN BEHERA**

Bestalde, eskaintza egin arren, hainbat zerbitzu bertan behera geratu dira talderik osatu ez delako: aerobika, karatea eta piragismoa, hain zuzen ere.

Hori dela eta, datozen egunetan bueltatuko diete dirua izena eman arren taldea osatu ez delako Uda Kanpainako ekintzetatik kanpo geratu direnei.



Pilotalekuan egiten dituzte tenis saioak hainbat neska-mutilek.

HERRITARRENHITZA / Alberto Telleria · Administrazioako langilea

San Juan kuku, San Pedro mutu

**H**ori diño esakeriak, baiña Elgetan horri buelta emon eta San Pedro bixamonian kuku eta datorren astelehenean mutu.

Ez da astelehena bela pasauko, orduak luze joango die, ziur.

Hala ta be, hor izango da gure lagun estimaua. Horrek astelehenean ez dau kale egiten, eta holako astelehenean gutxiago, *In-san-lus*.

Fresko etorriko da astelehenean *In-san-lus*. Ez pentsatu txinatarrak danik, Lizartzatik dator, Kaxianon herritik, bere korbata urdin eta guzti.

Hurrin barik izango da, eskua luzetu eta bertan gure

barruko beruak freskatzeko prest. Ez dau lan makala izango buru barruko erruki bako enano guztiak itotzen, 24 orduko langintzia gutxienez.

Baiña astelehena pasau baiño lehen, akaso letxugia baiño freskuago, jaixak pasau biharko dittugu, ezta?

Kontua da, jaixak, eguenian hasiko direla etxaplio eta kanpai hotsekin, domekan amaitzeko kanpai hotsak eta etxapliuak buru barruan direla.



“Letxugia baiño freskuago jaixak pasau biharko dittugu, ezta?”

Jai-batzordiak aurtengo jaietarako prestatutako programia irakurri ezker, ezin esan iaiztik berrikuntza haundirik dagoenik: umiendako jolasak, bersolarixak, kontzertuak gazte-txian, bola-txapelketia, presuak gogortzeko ekitaldixa, ferixia, etab.

Beti izaten da jaietako programia eztabaidarako gauzia, baiña ezin ukatu, gustokuak izan ala ez, parte hartu ala ez danondako ekitaldixak egon

badogozela: jubilaundako, umiendako, gaztiendako, ez hain gaztiendako...

Amaieria, gainera, orijinala da. Sardiña lurperatziakin izan biharrian, antzerki-lan batekin izango da. Sardiñak, aurretik jango doguz, antzerkixa tripa bete-betiakin patxaraz ikusteko.

Ez, ez da gizurra, ikusi bestela programia.

Jai gogorik ez da faltako herrixan, eta hori ikusi zan Eskola Txikixen Egunion. Egun polita izan zan, benetan, herri-giro ederrian pasautakua.

Ondo pasau jaixak. Eta kontuz *In-san-lusekin*.

LABUR

Nairobotarraren ikus-entzunezkoa egunean Espaloian

Uztailaren 7an, 20:00etan, ikus-entzunezkoa egongo da Espaloian. *Miloi bat kilometro lur azaletik! (1980-2003)* da emanaldiaren izenburua. Hori da Nairobotarraren espedizioek Afrikan, Europan eta Amerikan barrena ibili duten distantzia. Hogeita hiru abentura urtetan milaka argazki atera zituzten, eta haien artean ikus-entzunezkoan 160 erakutsiko dituzte. Autobus publiko bat, mudantza kamioi bat eta eskola-garraioa egiten zuten autobus bat erabili dituzte Nairobotarrakoe.

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 1a / 13. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: 55482/05

## Zortzi hilabetez itxita egongo da anbulatorio aurreko kalea

OIHANA ELORTZA

Kiroldegia handitzeko egiten ari diren obren parean dagoen aparkaleku txikia zulatzen hasi dira, eta horregatik itxi dute kalea. Zortzi hilabetez egongo da itxita ibilgailuendako eta oinezkoendako. Eta osasun etxera oinez joateko, San Juan kaletik joan behar da.

Astlehenean itxi zuten kiroldegitik anbulatoriora doan kalea. Kiroldegia handitzeko egiten ari diren lanen parean dagoen aparkaleku txikia zulatzen hasi dira lurpekoa egiteko, eta horregatik itxi dute kalea. Zortzi hilabetez egongo da itxita, ibilgailuendako zein oinezkoendako. Bitartean, anbulatoriora oinez doanak San Juan kaletik joan behar du. Tranbia bertatik pasa daitekeela pentsatuz, material bereziarekin egongo dute gero bide hori.

### SAN JUAN KALEAK BI NORANZKO

Kale hori itxi dutelako, ondoko kaleak egokitu egin dituzte. Orain, lanak bukatu arte, ibilgailuak bi noranzkotan ibiliko dira San Juan kaletik. Bestetik,



Lurpeko aparkalekuaren bigarren fasea egiteko itxi dute kiroldegitik anbulatoriora doan bidea.

kalea itxita dagoela dioten kartel handiak jarri dituzte: bat Errementari plazan eta bestea saihesbidetik sartuta dagoen zubian.

### 2007RAKO LANAK

Pasa den martxoan hasi zituzten kiroldegia handitzeko lanak eta uste dute bi urte beharko dituz-

tela obra guztia amaitzeko. Lurpeko aparkalekuaren bigarren fasearekin hasi dira orain. 120 autorentako tokia izango du.

## UDALEKUAK

## 520 ume inguruk gozatuko dute udalekuez uztaileko bi txandetan

O.E.

Lehendabiziko txandako umeak gaur, uztailak 1, hasi dira udalekuetan. Batzuk hilabete guztian joango dira. Uztailaren 15ean festa egingo dute lehenengo eta bigarren txandako umeek.

4 eta 10 urte bitarteko 520 ume inguruk hartuko dute parte udalekuetan. Aurten ere bi txanda antolatu dituzte eta lehenengo txandakoak gaur bertan hasi dira. Ume batzuk, gainera, hilabete

osoan joango dira udalekuetara. Ume horiekin batera 40 bat begirale ibiliko dira uztailaren 30era bitartean.

### UZTAILAREN 15EAN FESTA

Lehenengo txandarako zein bigarreneko, ekitaldi asko antolatu dituzte aurten ere: tailerrak, jolasak, San Ferminak eta igerilekura irteera, adibidez.

Uztailaren 15erako, berriz, egun berezia antolatu dute. Festa eguna izango da. Lehenengo txandaren amaiera eta bigarrenearen hasiera ospatuko dituzte.

Bi txandetako umeak elkartuko dira egun horretan, eta makina bat jolas egingo dute elkarrekin. Besteak beste, herri kirolak, opariak, jolasak eta antzerakoak egingo dituzte.

### GURASOENDAKO OHARRA

Euskara eta hezkuntza zerbitzuak gurasoei zera esan nahi die: 4 eta 6 urte bitarteko umeek Gaztelekura joan behar dutela 09:45erako eta 7 eta 10 urte bitartekoak, azoka plazara. 13:00etan joan beharko dute umeen arduradunek euren bila.



Hainbat jolas eta tailer egingo dituzte aurten udalekuetan ere.

## LABUR

### 'Ezetz lepoa jarri' ikusteko sarrerak salgai daude

*Ezetz lepoa jarri* antzezlanaren uztailaren 8an egingo dute Sarta Anan eta sarrerak salgai daude kultura etxean, 7 eurotan; egunean bertan, 8 euro balioko dute.

*Ezetz lepoa jarri* antzezlanaren komedia da. Ite apaindegi batean gertatu den hilketaren argitu behar dute eta publikoaren laguntza behar dute. Kontxu Odriozola, Jose Ramon Soroz eta Joseba Apaolaza dira aktoreetako batzuk.

### Zubillaga eta Torreauzoko jaiak dira asteburuan

San Pedro jaiak ospatuko dituzte asteburuan Zubillagan eta Torreauzon. Zubillagan, esaterako, film laburren emanaldia izango dute pilotalekuan gaur, egubakoitza gauean. Zapatuan, auzo afarian egingo dute bertsolariekin, eta baita urteroko mozorro lehiaketa ere. Domekan, pilota partidak, zinta lasterketa eta dantzaldia izango dira.

#### ALBAITARIAK

**ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala)** 609 54 16 13

**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

#### ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95

**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77

**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

**CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

**SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

**TRIPALDI Enrike** Justo Garate 1. 943 76 70 76

#### DIETISTAK

**ALBERDI Mireia** Olanar etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA  
Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

#### ERREHABILITAZIO FISIKOA

**LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

#### FISIOTERAPEUTAK

**ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**BASTERRETXEIA Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**UNZUETA Irene** San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

#### MASAILARIAK

**AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43

**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

#### MEDIKUNTZA ESTETIKOA

**BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

#### OTORRINOLARINGOLOGOA

**IGARTUA ALMANDOZ Julian** Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202

#### PODOLOGOAK

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

#### PSIKIATRA

**GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

#### PSIKOLOGOAK

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

#### YOGA

**SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

# POLTSIKO GUZTIETARAKO SUPER-ESKAINTZAK ABUZTUAN

Zuk zeuk aukeratu!

**10.000 ESERLEKU**  
Abuztuko edozein irteeratarako

MALLORCA	MENORCA	EIVISSARA	8 egun / 7 gau	TENERIFE	LANZAROTE	FUERTEVENTURA
Deetaá Aptu. 2 <sup>ll</sup> 4 pers OB Sur ** H. ME			<b>350€</b>	Valleluz Aptu. 2 <sup>ll</sup> HG	Club Sirocco Aptu. 2 <sup>ll</sup> 2 pers OB Los Naranjos Aptu. 2 <sup>ll</sup> 2 pers OB eta 2 aukera gehiago...	La Pirámide Aptu. 2 <sup>ll</sup> 2 pers OB
Deetaá Aptu. 2 <sup>ll</sup> 2 pers OB Catalonia Sol Pinos ** H. ME			<b>400€</b>	Valleluz Aptu. 2 <sup>ll</sup> ME Park Plaza Aptu. 2 <sup>ll</sup> ME eta 2 aukera gehiago...	Oferta Roulette 2 <sup>ll</sup> OB Don Paco Castilla Aptu. 2 <sup>ll</sup> OB eta 2 aukera gehiago...	Castillo de Elba Aptu. 2 <sup>ll</sup> OB La Pirámide Aptu. 2 <sup>ll</sup> OB
Catalonia Sol Pinos ** H. MO Orleans Garden *** H. ME eta 6 aukera gehiago...		Abrat *** H. ME Riomar ** H. ME	<b>450€</b>	Valleluz Aptu. 2 <sup>ll</sup> MO Chimisaeta *** H. ME eta 4 aukera gehiago...		
	Diana II Aptu. 1 <sup>ll</sup> OB Est. Cisne Blanco 2 <sup>ll</sup> OB		<b>500€</b>	Pez Azul Aptu. 3 <sup>ll</sup> MO Perla Tenerife *** H. MO eta 3 aukera gehiago...		Suite Puerta del Sol 2 <sup>ll</sup> H. ME
Riuletta **** ME Hotelur Club Laguna Bellevue 2 <sup>ll</sup> 2 pers H. ME eta 6 aukera gehiago...		Bergantín *** H. ME Fiesta Roulette *** H. ME	<b>550€</b>	Dania Park **** H. ME Panorama *** H. ME eta 6 aukera gehiago...	Los Fiscos Aptu. 2 <sup>ll</sup> ME Las Gaviotas Aptu. 2 <sup>ll</sup> ME Sol Morromar Aptu. 2 <sup>ll</sup> ME	Club Green Oasis Sun River **** H. ME, Club Taha *** H. GB, Green Oasis Costa Calma Aptu. 2 <sup>ll</sup> GB
Hipotels Oferta **** ME Riu Bonanza **** H. ME eta 8 aukera gehiago...	Barceló Pueblo *** H. ME		<b>600€</b>	Catalonia Punta del Reata **** H. GB, H10 Las Palmeras **** H. ME, eta 5 aukera gehiago...		
	Mediterrani *** H. ME	Fiesta Cala Nova *** H. ME Fiesta Cala Gració *** H. GB eta 2 aukera gehiago...	<b>700€</b>		San Antonio **** H. ME H10 Lanzarote Princess *** H. ME eta 3 aukera gehiago...	
Oferta Riu **** GB		Sol EIVISSARA **** H. ME Fiesta Club Bahamas *** H. ME	<b>750€</b>			Elba Sara **** H. ME Fuerteventura Plaetaa **** H. GB eta 3 aukera gehiago...
	Sol Falcó *** H. ME Valentín Son Bou **** H. ME		<b>800€</b>	Meliá Jardines del Teide **** H. GB	Occidental Allegro Oasis **** H. GB Rio Plaetaa Blanca **** H. GB Barceló Lanzarote **** H. GB	

9 egun / 7 gau

**900€**

IFA Bávaro Village \*\*\*\* H. GB, Grand Paradi-  
se Bávaro \*\*\*\* H. GB eta 2 aukera gehiago...

**1000€**

Ocean Cana Beach \*\*\*\* H. GB, Sunscape Punta  
Cana Grand \*\*\*\*\* H. GB eta 4 aukera gehiago...

**1100€**

Catalonia Bávaro Beach \*\*\*\*\* H. GB, Riu  
Taíno \*\*\*\*\* H. GB, Riu Bambú \*\*\*\*\* H. GB

**1200€**

Riu Palace Macao \*\*\*\*\* H. GB  
Meliá Caribe Tropical \*\*\*\*\* H. GB

KUBA

Gran Caribe Neptuno \*\*\* H. HG, H. Copa-  
cabana \*\*\*\* HG eta 3 aukera gehiago...

Gran Caribe Habana Riviera \*\*\*\* H. HG, Caribe  
Inglaterra \*\*\*\* H. HG eta 6 aukera gehiago...

Gran Caribe Club Kawama \*\*\*\* H. GB, Gran Caribe  
Varadero Internacional \*\*\*\* H. GB eta 4 aukera gehiago...

Tretap Habana Libre \*\*\*\*\* H. HG, Nacional  
de Kuba \*\*\*\*\* H. HG eta 7 aukera gehiago...

MEXIKO

Imperial Las Perlas \*\*\* H. GB, Dos Plaetaas \*\*\*  
H. GB

Maetaa Caribe \*\*\*\* H. GB

Club Maeva \*\*\*\* H. GB, Riu Lupita \*\*\*\*\*  
H. GB, Caracol Village \*\*\*\* H. GB

Meliá Turquesa \*\*\*\*\* H. GB, Riu Cancún  
\*\*\*\*\* H. GB, Gala Beach Resort \*\*\*\*\* H. GB

**ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.**

IRTEERAK BILBOTIK, Karibera izan ezik; horiek Madrildik.

Hegaldiaren gehigarria Bilbotik Mallorcara eta Fuerteventurara: 30€, EIVISSARA: 80€, Menorcara: 70€, Lanzarotera: 50€.

Prezioak pertsonako logela bikoitzean, kontratonek esaten ez bada eta aurretik aipatutako erregimenean. Abuztuko irteera konkretuentzat bakarrik. Karburantaren igoera, tasak, bisa, gestio datuak eta hegaldiaren gain kostua ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostatur Bakarrik; ME: Mantenu Erdia; HG: Hotela eta gosaria; MO: Mantenu osoa; GB: Guztia Barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. ESERLEKU MUGATUAK.

VIAJES  IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

viajesiberia.com